

## **PIERRE LOTI KALETIK ETA NAZIOARTEKO ZUBIEN AZPITIK BIZIKLETA ETA OINEZKOEN IBILBIDEA EGITEKO PROIEKTUA**

2022ko maiatzaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak txosten-eskaera bat bidali zuen, oinezkoentzako eta bizikletantzako ibilbidearen proiektuak Natura 2000 Sarean izan dezakeen eraginari buruzkoa.

Oinezkoentzako eta bizikletantzako ibilbidearen proiektuak jarduera hauek aurreikusten ditu:

- Pierre Loti bidea, ADIFen trenbide-plataformaren sarbideraino. Obra gutxi egin behar dira; izan ere, lehendik dagoen bide asfaltatuan oinarritzen da, zabalera handitzen du, dauden bermak erabiliz eta hesi berri bat eginez.
- Trenbide-plataformaren sarbidetik Iparralde hiribideraino: Santiago zubitik gora dagoen bidegorriarekin lotzen da; nazioarteko zubiak zeharkatu ahal izateko, egurrezko pantalan bat egitea proietatzen da, ibaiaren ohantzean kokatutako mikropiloteetan bermatuta.
- Aparkaleku berri bat egitea, parke ekologikoaren eta Plaiaundiako Instittuaren erabiltzaileen beharrak hobetzeko.

Proiektu hau ES2120018 - TXINGUDI - BIDASOA KBEaren mugetatik kanto garatzen da, baina haren babes-eremu periferikoaren barruan.

Ez da aurreikusten gune hori izendatzea eragin zuten espezie eta habitaten gaineko eraginik.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak TXINGUDIKO MARISMAS ESPAZIO NATURALEAN ERABILERA PUBLIKOA HARTZEKO GAITASUNARI BURUZKO AZTERKETAN, 7. puntuaren, bisitarien fluxuarekin eta kudeaketarekin lotutako jardueren eta kudeaketa-neurrien proposamenean, honako

## **PROYECTO DE ITINERARIO CICLISTA Y PEATONAL POR PIERRE LOTI Y BAJO LOS PUENTES INTERNACIONALES**

Con fecha 18 de mayo de 2022, se recibe por parte del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, solicitud de informe en relación a la posible afección a la Red Natura 2000 del proyecto de itinerario peatonal-ciclista.

El proyecto de Itinerario peatonal y ciclable contempla las siguientes actuaciones:

- Camino de Pierre Loti hasta el acceso de la plataforma ferroviaria de ADIF. las obras a ejecutar son de poca entidad, ya que se apoya en el camino asfaltado existente, aumentando su anchura utilizando las bermas existentes y ejecutando un nuevo vallado.
- Desde el acceso de la plataforma ferroviaria hasta Iparralde hiribidea: se conecta con el bidegorri existente aguas arriba del puente de Santiago; para poder atravesar los puentes internacionales se proyecta la ejecución de un pantalán de madera apoyado en micropilotes hincados en el lecho del río.
- Ejecución de un nuevo aparcamiento para mejorar las mejoras de necesidades de los usuarios del parque ecológico, así como del Instituto de Plaiaundi.

Este proyecto se desarrolla fuera de los límites de la ZEC ES2120018 - TXINGUDI-BIDASOA, pero dentro de su zona periférica de protección.

No se prevén impactos sobre las especies y los hábitats que motivaron la designación de este espacio.

Además, en el *ESTUDIO SOBRE LA CAPACIDAD DE ACOGIDA DE USO PÚBLICO EN EL ESPACIO NATURAL MARISMAS DE TXINGUDI* redactado por GV, en su punto 7. *propuesta de actuaciones y medidas de gestión*, relacionadas con el flujo y la gestión de visitantes, se indica lo siguiente:

hau adierazten da:

*Plaiaundiak Hendaiaarekin duen lotura ez da espazio hori zeharkatuz egin behar, baizik eta inguratuz; horrela, aurreikusitako bidezidorra kanpoaldeko perimetro osoa zeharkatuko du, hiritarragoa, estuarioko eta marearteko habitatak zainduz.*

Horregatik guztiagatik, zerbitzu tekniko horiek uste dute, 42/2007 Legearen 46.4 artikuluaren arabera, **proiektu honek ez duela “Natura 2000 Sarean izango dituen ondorioen ebaluazio egokirik” behar.**

*La conexión de Plaiaundi con Hendaia, no debe efectuarse atravesando este espacio, sino circundándolo, de forma que el sendero previsto recorra todo su perímetro exterior, más urbano, preservando sus hábitats de estuario e intermareales.*

Por todo lo anterior, desde estos servicios técnicos se considera que, de acuerdo con el artículo 46.4 de la Ley 42/2007, **este proyecto no tiene que someterse a la “adecuada evaluación de repercusiones sobre la Red Natura 2000”**.